

**PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

|   |   |             |     |
|---|---|-------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA                                  | KONTABILITATE KUDEAKETA   | Iraupena    | 90  |
|   |   | Espezifikoa |     |
| Kodea   | UF0314  |             |     |
| Lanbide-arloa                                       | ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA  |             |     |
| Lanbide-eremua                                      | Administrazioa eta ikuskapena   |             |     |
| Profesionaltasun-ziurtagiria                        | Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa  | Maila       | 3   |
| Prestakuntza-modulua                                | Kontabilitatea eta fiskalitatea                                       | Iraupena    | 240 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Zerga-kudeaketa   | Iraupena    | 90  |
|   | Kontabilitate-sistema informatizatu bat instalatzea eta kontrolatzea. |             | 60  |

**A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0231\_3 KONTABILITATE- ETA ZERGA-KUDEAKETA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 (kontabilitate-egoerak prestatzeari eta zuzen interpretatzeari dagokionez), LB2, LB3 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

**B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**
**Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak**

- A1: Kontabilitatearen ikuspegitik, enpresa-ondareari eragiten dioten eragiketa ekonomiko eta finantzarioak justifikatzeko dokumentuetan adierazitako informazioa zuzen interpretatzea.
- EI1.1 Frogagiritan islatutako ondare-elementuak identifikatzea, ondare-masetan sailkatuz eta enpresa-jardueran duten funtzioarekin erlazionatuz.
- EI1.2 Frogagiritan islatutako diru-sarrera eta gastuen azalpen guztiak, haien izaera eta enpresa-jarduerarekin duten erlazioa identifikatzea.
- EI1.3 Merkataritzako dokumentu-mota guztiak zuzen deskribatzea, eta zer eragiketa-motari dagozkion adieraztea.
- EI1.4 Merkataritzako dokumentuetan kontabilitaterako dagoen informazio garrantzitsua azaltzea.
- A2: Kontu-sail biko kontabilitate-metodoa, haren tresnak eta faseak zuzen interpretatzea.
- EI2.1 Kontu kontzeptua enpresa-elementuak adierazteko eta neurtzeko tresna gisa zehaztea.
- EI2.2 Kontu-motak eta haietako bakoitzaren kargu- eta abonu-hitzarmenak identifikatzea.
- EI2.3 Kontu-sail biko kontabilizazio-metodoa azaltzea.
- EI2.4 Enpresa baten zenbait eragiketa ekonomiko eta finantzarioren ezaugarri diren frogagiriak emanik, hauek eskatzen dira:
- Dokumentu bakoitzeko eragiketa-mota azaltzea.
  - Eragiketa bakoitzean parte hartzen duten ondare-elementuak edo diru-sarrera eta gastuen azalpenak identifikatzea.
  - Ondare-elementu bakoitzeko aldakuntzak eta haien zenbatekoa zehaztea.
  - Tartean diren ondare-elementuen kontu adierazgarri bakoitzeko karguaren edo abonuaren zenbatekoa zehaztea.
- A3: Ekonomia-ziklo bati buruzko informazioa prestatzea, kontabilitate-metodologia eta kontabilitate-plan orokorraren printzipioak eta arauak egoki aplikatuz.
- EI3.1 Ekonomia-ziklo oso baten kontabilitate-prozesuaren faseak bereiztea, eta horietako bakoitzaren funtzioa zehaztea.
- EI3.2 Kontabilitateko dokumentazioaren legalizazioa arautzen duten lege-preskripzioak interpretatzea.
- EI3.3 Ibilgetuaren amortizazio teknikoaren funtzioa zehaztea, eta prozesuan gehien erabiltzen diren metodoak azaltzea.
- EI3.4 Kontabilitate-aldizkakotzearen funtzioa azaltzea.
- EI3.5 Kontabilitate-plan orokorraren funtzioa merkataritza-legeria espainolaren eta Europar Batasuneko direktiben esparruan interpretatzea.
- EI3.6 Kontabilitate-plan orokorraren egitura interpretatzea, eta nahitaez bete beharreko atalak bereiztea.
- EI3.7 Kontabilitate-plan orokorreko kontuen koadroaren egitura enpresa-mota jakin batzuen berriarazko kontabilitate-planen diseinuan aplikatzea.
- EI3.8 Kontabilitate-plan orokorrean ezarritako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-arauak azaltzea.
- EI3.9 Kontabilitate-plan orokorreko talde, azpitalde eta kontu nagusietan ezarritako funtsezko definizio eta kontabilitate-erlazioak azaltzea.
- EI3.10 Galera-irabazien kontuaren egitura azaltzea, eta hark ezartzen dituen emaitza-mota guztien arteko aldeak zehaztea.
- EI3.11 Egoera-balantzearen egitura azaltzea, eta haren epigrafe guztien arteko erlazioak adieraztea.
- EI3.12 Hasierako ondare-egoera islatzen duten datuak eta enpresa baten ekitaldi ekonomiko bateko eragiketak justifikatzeko dokumentuak emanik, honako hauek eskatzen dira:

- Dokumentuetako eragiketak kontu-sail biko idazpenetan erregistratzea, kontabilitate-plan orokorraren printzipioak eta balorazio-arauak aplikatuz.
- Egunkariko informazioa liburu nagusiko kontuetara eramatea.
- Baturak eta saldoak egiaztatzeko balantzea zuzen egitea.
- Kontabilitate-plan orokorraren irizpideak aplikatuta behar diren hornidurak jartzea eta aplikatzea.
- Proposatutako amortizazio teknikoaren arabera egokiak diren amortizazioak jartzea, kontabilitate-plan orokorraren irizpideak aplikatuz.
- Egokiak diren kontabilitate-aldizkakotzeko idazpenak egitea.
- Erregularizazio-prozesuaren bidez emaitza lortzea.
- Egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua egitea, kontabilitate-plan orokorraren irizpideak aplikatuz.
- Memoriaren edukia proposatutako kasura egokituta zehaztea.
- Emaitza ezarritako argibideen arabera banatzea.

A4: Kontabilitate-informazioa aztertzea, transmititzen duen ekonomia- eta finantza-egoera zuzen interpretatuz.

EI4.1 Ekonomia-, finantza- eta joera-analisen funtzioak definitzea, eta analisi horien arteko aldeak eta erlazioak ezartzea.

EI4.2 Analisisirako garrantzitsua den informazioa informazio hori ematen duten kontabilitate-egoerekin erlazionatzea.

EI4.3 Analisisirako tresna hauek definitzea, eta haien funtzioa azaltzea:

- Maniobra-fondoa.
- Cash flow finantzarioa eta cash flow sortua.
- Batez besteko heltze-aroa.
- Palanka-efektu operatiboa.
- Lokagunea edo errentagarritasun-atalasea.
- Palanka-efektu finantzarioa.

EI4.4 Enpresa baten egoera ekonomiko eta finantzarioaren urteko kontu adierazgarriak emanik, honako hauek eskatzen dira:

- Kontabilitate-informazioa analisiaren eskakizunaren arabera ordenatzea, eta aktiboko, pasibo galdagarriko eta ondare garbiko elementuen balioa zehaztea.
- Ekonomia-, finantza- eta joera-analisisirako garrantzia duten diferentzia, portzentaje, indize eta ratioak kalkulatzeko.
- Emaitzak interpretatzea, analisiaren elementu guztiak erlazionatuz.

A5: Lan bat egitean zorrotz eta doitasunez jardun behar dela jakitea, eta enpresak garapen ekonomikoan eta sozialean duen garrantzia baloratzea.

EI5.1 Enpresak garapen ekonomikoan zer garrantzi duen azaltzea.

EI5.2 Kontabilitate-betebeharrak ez betetzeak edo haietan zehaztasun faltak izateak enpresari zer ondorio dakartzkion deskribatzea.

EI5.3 Enpresa baten kontabilitate-datuak emanik, datu horietan akats batzuk daudela, honako hauek eskatzen dira:

- Egindako akatsak azaltzea.
- Enpresarentzat zer ondorio izan ditzaketan analizatzea.
- Enpresaburuaren ardura baloratzea.

## Edukiak

### 1. Kontabilitate-teoria

- Kontabilitate-informazioa Sarrera. Enpresa-tipologia, kontabilitatearen ikuspegitik. Enpresaren ondarea. Ondare-masak. Ezaugarriak.
- Kontuak.
  - Kontabilitate-kontuak.
  - Kontuen kargu- eta abonua-hitzarmena.
  - Kontu-sail bikoitza.
  - Oinarritzko kontabilitate-araudia.
  - Kontabilitate-liburuak. Inbentarioen liburuak eta urteko kontuak. Liburu egunkaria. Liburu nagusia.
  - Enpresa-liburuaren legalizazioa.
  - Liburuak zaintzea.

### 2. Kontabilitate-plan orokorra (07).

- Merkataritza-legeriaren erreforma kontabilitate-arloan.
  - 2003ko abenduaren 20ko 60/2003 Legea.
  - Kontabilitatearen Erreformatarako Legea (16/2007 Legea).
  - 2007ko azaroaren 16ko 1514 eta 1515/2007 EDak.
- KPO berriaren egitura.
  - Kontabilitatearen kontzeptuzko esparrua.
  - Erregistro- eta balorazio-arauak.
  - Urteko kontuak.

- Kontu-koadroa.
- Kontabilitateko definizioak eta erlazioak.
- Kontzeptuzko esparrua.
  - Kontabilitate-printzipioak.
  - Urteko kontuak osatzen dituzten elementuak.
  - Urteko kontuen elementuen kontabilitate-erregistrarako irizpideak.
  - Balorazio-irizpideak.
  - Orokorrean onartzen diren kontabilitateko printzipioak eta arauak.

### 3. Ondare-masen tratamendua.

- Ibilgetu materiala.
  - Ibilgetu materialaren balorazioa.
  - Balio-zuzenketak. Amortizazioak eta hornidurak.
  - Ondasun higiezinetak inbertsioak.
- Aktibo ukiezina. Errentamenduak.
  - Aktibo ukiezinaren kontzeptua.
  - Aktibo ukiezinen hasierako eta geroko balorazioa.
  - Ibilgetu ukiezinaren arau bereziak.
  - Errentamenduak. Kontzeptua. Finantza-errentamendua. Errentamendu operatiboa Lursail eta higiezinaren errentamendua.
- Aktibo finantzarioak. Ezaugarriak.
  - Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak.
  - Mugaegunera arte mantentzen diren inbertsioak.
  - Negoziatzeko mantentzen diren aktiboak.
  - Galera-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko beste aktibo
  - Enpresen ondareko inbertsioak (enpresa talde, taldeaniztun eta elkartuenak).
  - Salgai dauden aktibo finantzarioak.
  - Aktibo finantzarioen baja.
- Pasibo finantzarioak. Definizioa eta sailkapena. Pasibo finantzarioen bajak.
  - Norberaren ondarearen tresnak. Finantza-tresna bereziak.
  - Emandako edo jasotako fidantzak.
- Izakinak. Atzerriko moneta.
  - Izakinak balioztatzeke irizpideak
  - Erosketa-prezioa. Ekoizpen-kostua
  - Zerbitzuen prestazioko izakinen kostua.
  - Izakinen geroko balorazioa.
  - Atzerriko monetan egiten diren transakzioak.
  - Urteko kontuak aurkezpen-monetara bihurtzea.
- Diru-sarrerak. Kontzeptua.
  - Salmenten diru-sarrera.
  - Merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak baloratzea.
  - Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak.
- BEZa, IGICa eta SZ.
  - BEZerako kontabilitate-kontuak.
  - Jasandako BEZa, kengarria eta kengarria ez dena.
  - Jasanarazitako BEZa
  - IGICa.
  - Etekinen gaineko zerga.
  - SZrako kontabilitate-kontuak.
- Hornidurak. Kontzeptua.
  - Azterketa eta balorazioa.
  - Horniduren kontuak.
  - Hornidurei buruzko kontabilitate-idazpenak.
- Langileen ordainsariengatiko pasiboak. Kontzeptua eta motak.
  - Langileen ordainsariak epe luzean kontabilizatzea.
  - Akzioetan oinarritutako ordainketak.

#### 4. Urteko kontuak.

- Ereduruntak eta laburtuak. Mugak.
- Balantzea. Eredurunta. Eredulaburtua.
- Galera-irabazien kontua. Eredurunta. Eredulaburtua.
- Ondare garbiko aldaketen egoera. Eredurunta. Eredulaburtua.
- Eskudiruaren fluxuen egoera.
  - Ustiapen-jardueren eskudiruaren fluxuak.
  - Inbertsio-jardueren eskudiruaren fluxuak.
  - Finantzaketa-jardueren eskudiruaren fluxuak.
- Memoria. Eredurunta. Eredulaburtua.

#### 5. Urteko kontuen analisi ekonomikoa eta finantzarioa.

- Analsi ekonomikoren eta finantzarioaren arteko funtzioak eta aldeak.
- Analsirako tresnak.
  - Maniobra-fondoa.
  - Zorpetze-maila.
  - Cash flowa.
  - Heltze-aroa.
  - Palanka-efektu operatiboa.
  - Errentagarritasun-atalasea.
  - Palanka-efektu finantzarioa.
  - Portzentajezko analsia.
  - Ratio aipagarriak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa